

DIRU-LAGUNTZEN PROGRAMEI BURUZKO EBALUAKETA 2015

LEHENDAKARITZA

1. Kanpo harremanen eremuan profesionalak espezializatzeko bekak.
2. Euskal Etxeentzako diru-laguntzak.
3. Egoera larrian dauden pertsonen diru-laguntzak.
4. Gaztemundu.
5. Bira Kulturalak.
6. Terrorismoaren biktimei arreta eta babes ematea bultzatzen duten erakundeentzako diru laguntzak.
7. Hezkuntza arloko Elkarrekin Bonuen programa.
8. Tokiko bizikidetzaren esparruan Elkarrekin Bonuen programa.
9. Herritarren parte-hartzearen arloko Elkarrekin Bonuen programa.
10. Memoria historikoa berreskuratzeko proiektuak egiteko diru-laguntzak.
11. Euskal Autonomia Erkidegoko udalek eta gainerako tokiko erakundeek bakearen, bizikidetzaren eta giza eskubideen arloan garatzen dituzten programak eta ekimenak garatzeko diru-laguntzak.
12. Bakearen, bizikidetzaren eta giza eskubideen arloan proiektuak garatzen dituzten erakundeei eta gizarte mugimenduei diru-laguntzak.

1.- Izenburua

Kanpo harremanen eremuan profesionalak espezializatzeko beka.

2.- Arau erregulatzaileria

Uztailaren 26ko 171/2011 Dekretua, kanpo harremanen eremuan profesionalak espezializatzeko beka arautzen dituena.

3.- Diru-laguntzaren programaren azalpen laburra eta helburuak

Beka arautzen dituen dekretuaren helburua da kanpo harremanen eremuan profesionalak espezializatzea eta trebatzea.

Bekadunak honako baldintza hauek bete behar dituzte besteak beste: goi mailako edo homologatutako graduako unibertsitate titulua izatea; gehienez ere, 30 urte izatea, beketara biltzeko deialdia egiten den urtean.

Euskadin bertan, Euskadiren edozein ordezkariztatzen edo ordezkariztatzen horien mendeko edozein bulegotan espezializatu eta trebatu ahal izango dira bekadunak.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

- 2015ean 8 beka deialdia egin zen eta 8 esleitu ziren, bakar bat ere ez zen esleitu gabe geratu.

- Erdietsitako emaitzei buruz, asebetetze inkesta bat egin zaie bekadunei; honako galdera hauek zituen inkestak:

- Asebetetze maila, esleitutako bekaekin.
- Asebetetze maila, parte hartu duzun ikastaro, jardunaldi eta mintegiekin.
- Asebetetze maila, beka aldiaren zehar jasotako jakintzarekin.
- Asebetetze maila, kanpo harremanen eta Europako gaien arloan datu-base, informazio iturri eta abarrei buruz jasotako jakintzarekin.
- Uste duzu prestatuago zaudela lanpostu bat aurkitzeko kanpo harremanen arloan (kanpo harremanak eta Europako gaiak).
- Adierazi zein alderdi aldatuko zenituzkeen kanpo harremanen alorrean profesional espezializatzeko beken helburuak hobetzeko.

Asebetetze maila adierazteko, bekadunek 0 eta 10 bitarteko zenbaki bat aukeratu behar zuten. Zero zenbakiak asebetetze maila txikiena adierazten du; eta hamar zenbakiak, asebetetze maila handiena. Inkestetan ez da izenik jaso.

Bekadunen esleitutako beka bakoiko asebetetze maila dela eta, 8 izan da batez besteko puntuazioa.

Parte hartutako ikastaro, jardunaldi eta mintegiekiko asebetetze maila dela eta, 7,4 izan da batez besteko puntuazioa.

Beka aldian jasotako jakintzarekiko asebetetze maila dela eta, 7,7 izan da batez besteko puntuazioa.

Kanpo harremanen eta Europako gaien arloan datu-base, informazio iturri eta abarrei buruz jasotako jakintzarekiko asebetetze maila dela eta, 8 izan da batez besteko puntuazioa.

Azkenik, kanpo harremanen arloan eta Europako gaien arloan lanpostu bat aurkitzeko prestatuago dauden galdetuta, 7,8 izan da erantzunen batez besteko puntuazioa.

1.- Izenburua

Euskal Etxeentzako diru-laguntzak

2.- Araua

[50/2008 DEKRETUA](#) (EHAA Zk. 69/2008) martxoaren 18koa, euskal etxeentzako diru-laguntzak emateko araubidea ezartzen duena

[175/2014 DEKRETUA](#) (EHAA Zk. 176/2014) irailaren 9koa, Euskal Etxeentzako diru-laguntzak emateko araubidea ezartzeko Dekretua aldatzekoa

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Dekretu honetan aurreikusitako diru-laguntzak jarduerak eta gastu osoak edo gastuon zati bat finantzatzera bideratuko dira, honako helburu hauek betetzeko: euskal etxeen baldintzak hobetzea, eta kanpoko euskal gizataldeen artean eta kokatuta dauden herrialdeen eta Euskadiren artean kultura, gizarte eta ekonomia harremanak sustatu eta sendotzea.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

MAGNITUDEA MAGNITUD	HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA
HELBURUA ERREALITATEA	3. Kanpoan den euskal komunitatea sendotzen laguntzea, Euskal Etxeen sarearen bidez.
2.000 2.100	1. Euskal Etxeek euskal errealitatea zabaltzeko mekanismo gisa betetzen duten zeregina sendotzea: - Euskal Etxeek antolatutako jardueren kopurua
10 75	2. Euskal Etxeen eta horien herrialdeetan finkatuta dauden beste diaspora batzuen arteko lankidetzaren sustatzea: - Elkarrekin egindako jardueren kopurua
200 180	3. Euskal Etxeek dauden herrialdeetako gizarteetan egiten dituzten jarduerak sustatzea: - Beste agente batzuekin egindako jardunen kopurua
150 103	4. Euskal Etxeetan informazioaren eta komunikazioaren teknologiak sartzeko aukera sustatzea: - Erabilitako komunikazio-kanalen kopurua
300 1.050	5. Euskal Etxeen bizitzan gazteen eta emakumeen presentzia sustatzea: - Ardurak dituzten gazteen eta emakumeen kopurua
4 2	6. Euskal Etxeen sarea zabaltzea, helmuga berrietan bereziki: - Eusko Jaurlaritzak ofizialki erregistratutako Euskal Etxe berrien kopurua
	Orokorrean, betetze gradua ona da. Euskal etxeek aipatutako helbururentzat erabiltzen dute diru-laguntza eta ez daude ezberdintasun handirik eskatutako eta zuritutako artean. Diru-laguntzaren limitea 30.000 eurokoa da, beraz hobeto banatzen da dirua euskal etxea handi eta txikien artean eta azken hauek sarritan diru-laguntzaren menpean daude, euskal kultura hedatzeko ekintzak egin ahal izateko.

1.- Izenburua

Egoera larrian dauden pertsonei diru-laguntzak

2.- Araua

[222/2003 DEKRETUA](#), irailaren 30ekoa, Euskal etxeei diru-laguntzak emateko deialdia arautzeko dena. Diru-laguntza horiek atzerrian dauden euskal gizataldeetako partaideak diren eta egoera larrian eta asistentzia faltan dauden pertsonei laguntzeko dira

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Laguntza horiek Euskal gizataldeetako partaideak diren eta egoera larrian eta asistentzia faltan daudenentzako izango dira

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

MAGNITUDEA MAGNITUD	HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA
HELBURUA ERREALITATEA 80 81	4. Kanpoan den euskal komunitatea osatzen duten pertsonei laguntzea 1. Premia larriko egoeran dauden familia- unitateei laguntza ematea: - Lagundutako familia-unitateen kopurua
	Balio handiko programa da eta eragin handia dauka haien gizartean, diru-laguntzaren ezaugarriagatik eta doan publiko-helburura, egoera pertsonalak eta familiakoak hain bereziak izanda.

1.- Izenburua

Gaztemundu

2.- Araua

[316/2003 DEKRETUA](#), abenduaren 23koa, Gaztemundu programa arautzen duena
[38/2015 DEKRETUA](#), martxoaren 31koa, Gaztemundu programa arautzen duen Dekretua aldatzeko dena

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

- a) Euskal Etxeetako gazteek gaur egungo Euskadiri buruzko heziketa eta jakintza zabalagoa izatea, eta Euskadin lan egiten duten eta bizi diren elkarte, erakunde, enpresa eta pertsonekin harremanak izatea
- b) Euskadin bizi diren euskal gazteen eta kanpoan bizi direnen arteko harremanetarako guneak sustatzea, eta kanpoan bizi diren euskal gazteak Euskal Etxeetan parte hartzera bultzatzea

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

MAGNITUDEA MAGNITUD	HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA
HELBURUA ERREALITATE A 300	3. Kanpoan den euskal komunitatea sendotzen laguntzea, Euskal Etxeen sarearen bidez. 5. Euskal Etxeen bizitzan gazteen eta emakumeen presentzia sustatzea: - Ardurak dituzten gazteen eta emakumeen kopurua -
15	Programa hau sortu zenetik, bere zain daude euskal etxeak, haien ekintzetan inplikatzeko direlako gazteak eta bere formazioa hori geratzen delako. 2015ean 15 partaide izan ziren, formazioa kultura-erakunderi buruz zen eta ikusle moduan parte hartu zuten VI Euskal Gizataldeekiko Mundu Biltzarran.

1.- Izenburua

Bira Kulturalak

2.- Araua

[186/2003 DEKRETUA](#), uztailaren 29koa, kanpoko euskal etxeak dauden tokietara bira kulturalak egiteko diru-laguntzen araubidea ezartzen duena.

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Diru-laguntzak bira kulturaren bidai gastuak ordaintzeko izango dira. Bidaiok hartzaileek programaturako dituzte eta euskal etxeen, etxeon federazio eta konfederazioekin adostu beharko dira.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

MAGNITUDEA MAGNITUD	HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA
HELBURUA ERREALITATEA 2.000	3. Kanpoan den euskal komunitatea sendotzen laguntzea, Euskal Etxeen sarearen bidez. 1. Euskal Etxeek euskal errealitatea zabaltzeko mekanismo gisa betetzen duten zeregina sendotzea: - Euskal Etxeek antolatutako jardueren kopurua
10	Programa hau sortu zenetik, bere zain daude euskal etxeak, kultura ekitaldi bereziak egiteko aukera delako. Horregatik, azken urteotan, bakarrik Munduko Biltzarrekin batera deitu da.

1.- Izenburua

Terrorismoaren biktimei arreta eta babesa ematea bultzatzen duten erakundeentzako diru-laguntzak

2.- Araua

EBAZPENA, 2011ko ekainaren 22koa, Biktimen eta Giza Eskubideen zuzendariarena, terrorismoaren biktimei arreta, elkartasuna eta babesa eskaintzea bultzatzen duten erakunde eta elkarteentzako laguntzak arautzen dituena.

EBAZPENA, 2015eko irailaren 23koa, Biktimen eta Giza Eskubideen zuzendariarena, 2015. urteko laguntzetarako deialdia egiteko dena, terrorismoaren biktimei arreta, elkartasuna eta babesa eskaintzea bultzatzen duten erakunde eta elkarteentzat.

3.- Diru-laguntzen programen azalpen laburra eta helburuak

Programaren helburua da, hain zuzen, Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko programaren aplikazio-eremuarekin zerikusia duten antolakunde pribatuen proiektuak eta jarduerak sustatzea. Kasu honetan, eta antolakunde horiek egin nahi duten jarduera integratzailea garatzeko dauden premia ekonomikoez jabetuta, laguntzak ezartzen dira kalte pertsonalak sortu dituzten ekintza terroristen biktimei laguntza, babes humanoa eta laguntza psikosoziala emateko jarduerak sustatzeko, argiro lehenetsiz ohiko laguntza, laguntza psikosozial eta morala, talde-terapiak, eta abarretatik bereizten diren antolakundeen programak eta jarduerak.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Guztira, 46 proiektu diruz lagundu dira, 20 elkartek aurkeztuak, eta 260.000 euro banatu dira. Dekretu berri bat tramitatzen ari da; orain laguntza horiek Lehendakaritzarenak baitira.

1.- Izenburua

Hezkuntza arloko Elkarrekin Bonuen programa

2.- Araua

110/2014 DEKRETUA, ekainaren 17koa, Elkarrekin Bonuen Programa arautzen duena.

EBAZPENA, 2015eko martxoaren 18koa, Biktimen eta Giza Eskubideen zuzendariarena, hezkuntza-arloko Elkarrekin Bonuak programaren 2015eko deialdia egiten duena.

3.- Diru-laguntza Programaren Azalpen Laburra eta Helburuak

Ebazpen honen xedea da hezkuntza-arloko Elkarrekin Bonuak programaren 2015eko deialdia egitea.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Guztira, 165 proiekturi eman zaizkie diru-laguntzak; proiektuok 21 erakundek aurkeztu dituzte eta 124 eskolatan egin dituzte.

1.- Izenburua

Tokiko bizikidetzaren esparruan Elkarrekin Bonuen programa

2.- Araua

110/2014 DEKRETUA, ekainaren 17koa, Elkarrekin Bonuen Programa arautzen dueña

EBAZPENA, 2015eko ekainaren 10ekoa, Biktimen eta Giza Eskubideen zuzendariarena, Elkarrekin Bonuen Programaren 2015eko deialdia egiten duena tokiko bizikidetzaren esparruan

3.- Diru-laguntza Programaren Azalpen Laburra eta Helburuak

Ebazpen honen xedea da Tokiko Bizikidetzaren Esparruan Elkarrekin Bonuak programaren 2015eko deialdia egitea.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Guztira, 4 proiekturi eman zaizkie diru-laguntzak; proiektuok 3 erakundek aurkeztu dituzte eta 3 udaletxetan egin dituzte.

1.- Izenburua

Herritarren parte-hartzearen arloko Elkarrekin Bonuen programa

2.- Araua

110/2014 DEKRETUA, ekainaren 17koa, Elkarrekin Bonuen Programa arautzen duena

EBAZPENA, 2015eko martxoaren 18koa, Biktimen eta Giza Eskubideen zuzendariarena, herritarren parte-hartzearen arloko Elkarrekin Bonuak programaren 2015eko deialdia egiten duena

3.- Diru-laguntza Programaren Azalpen Laburra eta Helburuak

Ebazpen honen xedea da Herritarren parte-hartzearen Elkarrekin Bonuak programaren 2015eko deialdia egitea.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Guztira, 27 proiekturi eman zaizkie diru-laguntzak; proiektuok 9 erakundek aurkeztu dituzte.

1.- Izenburua

Memoria historikoa berreskuratzeko proiektuak egiteko diru-laguntzak

2.- Araua

EBAZPENA, 2014ko abenduaren 23koa, Biktimen eta Giza Eskubideen zuzendariarena, memoria historikoa berreskuratzeko proiektuak egiteko diru-laguntzetarako deialdia egiten duena 2015. urterako.

3.- Diru-laguntzen programaren azalpen laburra eta helburuak

Diru-laguntzen programa horren helburua da Euskal Autonomia Erkidegoan, memoria historikoa eta balio demokratikoak berreskuratu, zabaldu eta ezagutzeko proiektuak zein 1936-1977 aldian demokraziaren eta askatasunaren alde egindako lana zabaldu eta ezagutzeko proiektuak egiteko laguntzak ematea pertsona juridiko pribatu eta irabazi-asmorik gabekoei.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Guztira, 46 proiekturi eman zaizkie diru-laguntzak. Proiektuok 31 elkarterenak ziren, eta, gutxi gorabehera, 3.000 hartzaille izan dituzte.

1.- Izenburua

Euskal Autonomia Erkidegoko udalek eta gainerako tokiko erakundeek bakearen, bizikidetzaren eta giza eskubideen arloan garatzen dituzten programak eta ekimenak garatzeko diru-laguntzak.

2.- Araua

EBAZPENA, 2015eko otsailaren 11koa, Biktimen eta Giza Eskubideen zuzendariarena, zeinaren bidez iragartzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko udalek eta gainerako toki-erakundeek bakearen, bizikidetzaren eta giza eskubideen arloan garatzen dituzten programak eta ekimenak diruz laguntzeko bideratutako laguntzetarako deialdia, 2015. urterako.

3.- Diru-laguntzen programaren azalpen laburra eta helburuak

Diru-laguntzen programa honen helburua da Euskal Autonomia Erkidegoko udalei eta gainerako tokiko erakundeei laguntzak ematea giza eskubideen, bakearen eta bizikidetzaren arloan programak eta ekimenak egin ditzaten.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Guztira, 65 proiektu diruz lagundu dira; proiektuok 39 udalerritakoak dira, 5.000 biztanle inguru hartzen dutenak.

1.- Izenburua

Bakearen, bizikidetzaren eta giza eskubideen arloan proiektuak garatzen dituzten erakundeei eta gizarte mugimenduei diru-laguntzak

2.- Araua

EBAZPENA, 2015eko apirilaren 1ekoa, Biktimen eta Giza Eskubideen zuzendariarena, zeinaren bidez iragartzen baita Euskal Autonomia Erkidegoan bakearen, bizikidetzaren eta giza eskubideen arloan proiektuak garatzen dituzten erakundeei eta gizarte-mugimenduei laguntzak emateko deialdia 2015. urterako.

3.- Diru-laguntzen programaren azalpen laburra eta helburuak

Diru-laguntzen programa honen helburua da diru-laguntzak ematea pertsona juridiko pribatu irabazi-asmorik gabeei, bakearen, bizikidetzaren eta giza eskubideen arloan proiektuak garatu ditzaten gure autonomia-erkidegoan.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Guztira, 129 proiekturi eman zaizkie diru-laguntzak; proiektuok 81 erakundek aurkeztu dituzte. Diruz lagundutako jarduerak 7.000 inguru izan dira.